

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GORBEIALDEKO KUADRILLA

Behin betiko onestea 2021eko aurrekontu orokorra

Bat etorri otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuenak, 15.1 artikuluan xedatutakoarekin, eta inolako erreklamazio edo oharrik aurkeztu ez denez 2021eko aurrekontu orokorrari hasierako onespena eman zion erabakiaren aurka, aurrekontu hori behin betiko onetsita geratzen da; hau da laburpena, kapituluka:

Gastuen egoera

1. Langile gastuak	750.193,03 euro
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	697.207,80 euro
5. Kreditu orokorra eta aurreikusi gabeko beste batzuk	30.000,00 euro
6. Inbertsio errealak	9.000,00 euro
Gastuen egoera, guztira	1.486.400,83 euro

Diru sarreraren egoera

3. Tasak eta bestelako diru sarrerak	3.900,00 euro
4. Transferentzia arruntak	1.473.500,83 euro
7. Kapital transferentziak	9.000,00 euro
Diru sarrerak, guztira	1.486.400,83 euro

Aldi berean, eta 7/1985 Legearen 90. artikuluan, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 127. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legearen 16. eta 20. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorri, kuadrillako aurrekontu plantilla argitaratzen da.

LANGILE FUNTZIONARIOAK

PLAZAK	KOPURUA	TALDEA	ADMINISTRAZIO EGOERA	OROKORRA / BEREZIA	DEDIKAZIOA
Gizarte langilea B	1	A2	PHB	Berezia	Osoa
Administrari laguntzailea Oinarritzko giz. zerbitzua	1	C2	PHB	Orokorra	Osoa

LAN KONTRATUPEKO LANGILEAK

PLAZAK	KOPURUA	TALDEA	ADMINISTRAZIO EGOERA	OROKORRA / BEREZIA	DEDIKAZIOA
Kudeatzaile legelaria	1	A1	PHB	Berezia	Osoa
Gizarte langilea A	1	A2	B	Berezia	Osoa
Administrari laguntzailea	1	C2	PHB	Orokorra	Osoa
Euskara teknikaria	1	A2	PHF	Berezia	Osoa
Berdintasun teknikaria	1	A2	H	Berezia	Osoa
Gizarte eta kultura animazioko teknikaria	2	C1	PHF	Berezia	Osoa
Gizarte eta kultura animazioko teknikaria	1	C1	PHF	Berezia	% 50
Ekonomiaren sustapenerako teknikaria	1	A1	PHF	Berezia	Osoa
Agiritegiko teknikaria	1	A2	PHF	Berezia	Osoa

B: plaza beteta

H: hutsik

PHB: plaza hutsik, baina bitarteko batek beteta

PHF: plaza hutsik, baina langile finko batek beteta

BATZAR OROKORREKO KIDEEN ORDAINSARIAK ETA DIRU ESLEIPENAK:

– Lehendakaria: dedikazio partziala, ehuneko 50ekoa, eta urteko ordainsaria 24.831,53 euro.

– Kuadrillako batzarreko kide guztiek batzarraren bileretara edo parte diren beste organoen bileretara joateagatik, bai eta eskatzen dieten ekitaldi ofizialetara joateagatik: 75 euro, 3 orduko iraupenera arte. Aipatutako organoen bilera bat baino gehiago badago egun eta leku berean, edo kuadrillako batzarreko kideei ekitaldi ofizial batera baino gehiagora joateko eskatzen bazaie, ekitaldi bakoitzaren iraupenaren arabera dietak jasoko dituzte, ekitaldien iraupena batuta 3 ordu baino gehiagokoa bada.

Kuadrilla honetako aurrekontu orokorra behin betiko onesten duen erabakiaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian. Horretarako, bi hilabete izango dira, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Dena den, nahi izanez gero, aurreko lerroaldean adierazitako administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu aurretik, erabaki honen aurka berraztertzeke errekurtsua aurkeztuko zaio Gorbeialdeko Kuadrillako Batzarrari. Horretarako, hilabete izango da, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Murgia, 2021eko otsailaren 22a

Lehendakaria

AGUSTÍN OTSOA ERIBEKO LANDA